

Mondragon Goi Eskola Politeknikoak, bigarren urtez jarraian, "Zientziaren Astea" dela eta, Mondragon-eko hainbat erakundek antolatu dituzten ekitaldietan parte hartu du azaroaren 10etik 14ra bitartean Garaiaiko Ikerketa Laborategietan.

2008/11/17

Inguruko Ikastetxetako hainbat ikasle eta irakaslek gaur egun lantzen ari diren proiektu berezi eta berriekin egindako erakustaldi praktikoetan parte hartzeko aukera izan dute.

Era honetan, ikasleei ikerketarako grina piztu nahi zaie eta horrek, beraien etokizun profesionala hobeto erabakitzen lagundu diezaiekete.

